



30.urteurrenean murgilduta jarraitzen dugu

Hirukoa lehiaketa eta Olgetan Astea prestatzen ari gara datozen hiletarako.

Uda aurretik hasi ginen Berbaroren 30.urteurrena ospatzen, eta datozen hileotan ere horretan jardungo dugu. Egun handia ekainaren 1a izan genuen; eguzkia ere gogotsu etorri zen urteurren jairara, eta gero Plateruenan familia handia batu ginen Berbaroren 30.urteurrena ospatzeko. Ilusio handia egin zigun gertuko lagunekin eta aspaldi ikusi bako berbarotarrekin elkartzek. Baina hau ez da amaitu, ez horixe!

Hirukoa lehiaketa

Azaroaren 4an Hirukoa lehiaketa abiatu dugu. Taldekako lehiaketa izango da, eta 3 pertsonako taldeek zenbat dakiten frogatuko dute. Fase bi izango ditu: lehenengo fasean, hiru astez, internet bidez edo tabernetan utzitako orrietan 15 galdera erantzun beharko dituzte taldeki-deek. Astelehenetan argitaratuko ditugu galderak eta aurreko asteko erantzunak eta irabazleak. Hiru aste horiek pasata, azaroaren 28an aurrez aurre elkartzeko

gara lehiaketa handian: Plateruena Kafe Antzokian kultura, umorea eta jakinduria uztartuko ditugu. Aurretik beroketetan parte hartu dutenek eta parte-hartzaile berriek parte hartu ahalko dute, eta ez da saririk faltako!

Olgetan Astea

Astelehenero Olgetan ludoteka atontzen dugu Plateruenan, eta bertan ere zer edo zer berezia egin gura izan dugu, Ibaizabal ikastolarekin elkarlanean. Ibaizabalen Haur Hezkuntzako zikloa ikasten dabil-tzan ikasleek 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako ikuskizunak prestatzen dituzte urtero, eta aurten Olgetan Astea eskainiko dituzte emanaldiak: lau ikuskizun izango dira guztira, abenduaren 16an lehenengo biak eta 18an beste biak.

Urteko azkena!

Eta, zelan ez! Urteurren urte hau gano-raz agurtzeko aurten ere Urteko Azken Bertso Saioa izango dugu. Badakizue,



Urteurren biribil honetan webgunea berritzen ibili gara, eta dagoeneko www.berbaro.eus berriua duzue ikusgai sarean. Gure proiektuen berri aurreko webgunean baino txukunago emango dugu hemendik aurrera, eta edukiak hobeto ikusiko dira mugikor eta tabletetan.

Eduki aldetik nobedadeak ere baditu webguneak: urtero kale-ratzen ditugun irakurgidak bertan dituzue eskuragai, eta baita Berbarotarra aldizkariaren hemeroteca ere. 1993ko 0.aletik honakoak zintzilikatu ditugu webgunean. Sartu eta kuxkuxeatu!

abenduaren 30ean, Plateruenan elkartuko gara urteroko ohiturari eutsiz. Baina urte hau ez da guztiz arrunta izan, eta bertso saioa ere berezia izango da!

Durangoko jaietako euskararen ajea

Azken urteotan San Fausto jaietan ikusi eta bizi izan ditugun ekimenen hizkuntzak sortutako kezak bultzatuta, eta Donostiako Bagera Elkartek Aste Nagusian urtero egiten duen azterketa oinarri hartuta, Durangoko jaien hizkuntzaren neurketa egin dugu aurten.

Beharrezkoa ikusi dugu San Fausto jaietan programatzen eta eskaintzen den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzea, datuak mahai gainean ipini eta aurrera begira zer hobetu behar den zehaztea.

Durangoko Udaleko jai-egitarau ofizialean dauden ekintzak hartu, eta gehienak eta jendetsuenak behatzen saiatu gara, guztira 91 ekintza behatu ditugularik. Ekintzetan erabili den hizkuntza zehazterako orduan, ekintzaren aurkezpena, dinamizazioa, izan dituen euskarriak eta ekintza bera zein hizkuntzatan egin den izan ditugu kontuan, ahalik eta elementu gehien kontuan edukitzeko.

Emaitzak

Jaso ditugun emaitzak oso esanguratsuak izan dira: guztira behatu ditugun 91 ekintzetatik 37 erdaraz izan dira (%41a), 32 euskaraz (%37a) eta 22 elebitan (%24a). Hau da, Durangoko jaietan gehien bat erdaraz programatu dira ekintzak.

Umeei zuzendutako ekintzetan arreta ipi-niz gero, oraindik kezkarriagoak dira emaitzak: neurtutako 26 ekintzetatik, 13 izan dira erdaraz (%50a), 7 euskaraz (%27a) eta 6 elebitan (%23a).

Aldea egon da ere antolatzaileen aldetik. Durangoko Jai batzordeak antolatutako egitarauaren %42 izan da erdaraz, %25 euskaraz eta %33 elebitan. Bestalde, Durangoko Txosna Batzordearen egitarauaren %71 izan da euskaraz, %21 erdaraz eta %8 elebitan. Beste eragileen kasuan,



barrakak sartu ditugu multzo honetan, eta %100 izan da erdaraz.

Ondorioak

Hizkuntzaren neurketa honen ondorio nagusia Durangoko jaiak gehien bat erdalduak direla da, eta lehen aipatu dugun moduan, batez ere umeei zuzendutako egitaraua.

Hemen azaldu diren datuak ez doaz Durangoko hizkuntza ulermen datuekin bat, EUSTATen azken inkestaren arabera Durangoko biztanleen %73a euskara ulertzeko gai baita, eta umeen kasuan %97a.

Gure ustez datu hauek iraultzeko garaia da. Datuak eskaini gura izan ditugu egoera zein den ikusi, hausnartu eta denon artean jaietako buelta bat emateko. Badakigu ez dela erraza durangar gehienentzat erakargarria izango den jai egitarau zabal bat osatzea, baina mahai gainean ipini ditugun hizkuntza datuak ez dira onargarriak, eta bereziki larria da umeei zuzendutako ekintzen hizkuntza eskaintza.

Durango euskalduntzeko bidean, berebiziko garrantzia ematen diogu jaien hizkuntza eskaintzari, azken finean Duran-


goko jaiak jendeak momentu atseginak eta lagun-arteak bizi dituen sasoi delako, eta hau zenbat eta giro euskaldunagoan egin orduan eta euskarazko giro informal gehiago sortzen joango garelako.

Berbarok eskua luze eta zabal


Nabarmendu gura dugu neurketa honen helburua ez dela inor seinalatu edo eragileen arteko konparaketa egitea; denok daukagu zer hobetu. Mahai gainean ipini gura izan duguna egoeraren azterketa zehatza izan da, eta honi buelta emateko beharra. Horregatik, Berbarok prest dago jaien antolakuntzan dabilzan eragile, norbanako eta elkarteei, datorren urteko jaietako gure laguntza emateko. Aurkitu ditugun hutsune askok konponbide sinplea dutela ikusi dugu, eta guk badaukagu esperientzia antzeko kasuetan, beraz, datorren urteko jaietako Berbarok izango du bere lana beste eragile batzuekin elkarlanean, datu hauei buelta eman eta Durangon San Fausto jai euskaldunak izan ditzagun.

Zehaztasun guztiak neurketaren txostenean aurkitu ditzakezue, gure webgunean.

Neurketaren emaitza orokorrak



Umeeentzako ekintzak



lazko ikasturtean jaio zen Klak egitasmoak aurten ere bidea egiteko anbizioa erakutsi du. Durangoko Institutuan, Jesuitetan, Maristetan, Ibaizabalen eta lurretako Juan Orobiogoitian izango da lur hartzea. Irakasle arduradun, arduratsu eta arduratuen laguntzarekin azaroan egingo ditugu gelaz gela aurkezpenak.

Ikastetxe guztiek daukate euren Hizkuntza Normalizaziorako Plana. Bada euskara talde edo batzorde propioa duenik ere, baina ahaleginak ahalegin, Batxilergoko ikasleen euskara erabileran aldaketa nabarmenik ez da antzeman. Berbarok dinamizatzen zituen *Zergatik ez?* euskara motibazio saioren formatua agortutzat emanda, 16-18 urteko gazteak erakarriko zituen dinamika eraginkorra eta luzarokoa hezurramitzen hasi ginen. Amua, erronka ezberdinak gaituztea. *500 argazki baietz!* esaterako, Klak marka lau haizetara hedatuko zuten pegatinak Durangaldeko hainbat txokotan itsatsi eta hauei argazkia ateratzea, alegia.

Eusle, euskarari eustearren erronka

Aurten beste era batera zirikatatu nahi ditugu gazteak. Aisialdiko ekintzez gain (asteburu-pasa, jaialdia, etab.), hizkuntza ohituretan aldaketak eragin eta aldaketa

KLAK: gazteen hizkuntza erabileran eragiten



horren tamaina neurtuko duen metodologia probatuko dugu. Euskaraldiko ahobizi rolaren antzekoa da euslearena. Ikaskideak edozein hizkuntzatan mintzo direlarik ere, euslea espaloian mantenduko da gutxienez astebetetz; hau da, euskaraz eraikiko ditu ikasgelako harreman guztiak. Ariketa hau hilabetez luzatzea esperatu da.

Madlipz lehiaketa

Bideoak bikoizteko aplikaziorik erabiltiena da Madlipz delakoa, batik bat barrera eragiteko esketxak ekoiztera begira. Berau erabiliz lehiaketa antolatuko dugu Klak-en; umorea eta teknologia konbinatzen dituen koktela tresna bat besterik ez da gozamen une bat euskaraz bizi dezaten.



Berbaroko lantaldean lagun berri bi dauzkagu: Marina Agirre Berriozabal durangarra eta Eneko Iraeta San Sebastian zaldibartarra. Hilabete inguru daramatzate gazte arloan beharrean, eta lehen egunetako informazio uholdea eta gero, dagoeneko martxa hartuta dabilte. Momentu ona da, beraz, eurei buruz zerbait gehiago jakiteko!

Esku artean dituzuen egitasmoetatik zein nabarmenduko zenukete?

E: Berbarok bere ekimenez sortutakoak

dira gehien zaindu eta mimatu beharrekoak, Klak dinamika edota Itzartu gazte taldea nire kasuan. Hala ere, ludoteka eta gazte txokoetan lan egitetik natorrenez, lurretako Etxego gaztelekuari ere gustura asko eskaintzen diot exijitzen duen tartea eta buruhaustea.

M: Ni orain arte "Gurean" proiektuarekin ibili naiz buru-belarri. Durangaldeko jatorri ezberdinetako ume zein gazteentzako eskolaz kanpoko euskara errefortzuak eskaintzen ditu egitasmo honek, eta horretan gabiltza.

Zerk motibatzen zaituztete gehien haur eta gazte arloan?

M: Nik, besteak beste, Saguanbara proiektuan parte hartuko dut, eta egia esan desiatzen nago txoko horretan lan egiteko. Haurrei euskal kulturaren murgiltzea jolas eta irudimenaren bitartez... ez da erronka erraza, baina horrek asko motibatzen nau.

E: Niri ilusio berezia egiten dit udalekuak kudeatzeak, bereziki udaleku ibiltariak. Hezitzaile modura aritu izan naiz halakoe-tan, eta esperientzia hori eta mendizaletasuna baliatu nahiko nitzuke, rol edo ardura berri honetatik, 12 eguneko abentura eder bat antolatzeke.

Zer behar dugu Durango euskaldunago baterantz jotzeko?

E: Norabide berean denok arraun eginez gero gaitz erdi. Hezkuntza komunitatea hain da zabala... Haur eta gazte durangarren futbol entrenatzaileak esaterako aginduak euskaraz ematen hasten diren egunean urrats handia emango dugu.

M: Berbaron partetik lan ederra egiten da! Baina globalago pentsatzen eta "topikazo" bat den arren, nik argi daukat dakigunok euskaraz egin behar dugula, ikasten dagoenari lagundu eta interesa daukana animatu. Ez dago formula magikorik honetan, gogoia jartzea da funtsa.

Familian Euskaraz Olgetan



Egin dezagun Familian Euskaraz Olgetan!

3 eta 5 urte arteko umeak dituzten familiei zuzendutako saioa da Familian Euskaraz Olgetan. Eskolatik kanpora, parkean, etxean, txangoetan, noiznahi eta nolannahi erabili ahal izateko kantu-jolasak ikastea eta elkarbanatzea du helburu. Helduoi euskaraz jolasteko tresnak eskaintzea, alegia.

Durango Merinaldearen Amankomunazgoa osatzen duten 9 herritan izaten ari dira saioak, 30 guztira. Durango ere hainbat saio egingo dira, azaroaren 12, 13 eta 14an Plateruena Kafe Antzokian egingo direnak, besteak beste.

Plaza mugatuak direnez, 946202540 telefono zenbakira deituta edo **gazteak@berbaro.eus** helbidera mezua bidalita eman daiteke izena.

Ez galdu gozamenerako aukera, eta eman tartea jolasari!

Itzartukideak gaupasan doaz!

Gau osoan zehar logurari eusteak badu okerkeri eta errebeldia kutsua, batez ere nerabezaroan. Etxetik kanpo eta lagunartean bada, are gehiago, a zer emozioa! Horixe da, labor azalduta Itzartu gazte taldekoek ikasturte honetan egingo duten lehenengo ekintza; lurretako Juan Orobiogoitia ikastetxean, kiroldegian, igaroko dute gaua. Azaroko azken aurreko asteburuan izango da hori, hilaren 23tik 24ra. Laster ikastetxez ikastetxe joango gara proiektua aurkeztera eta ikasturte guztirako izen-ematea zabalduko dugu.

Hezitzaile boluntarioak

Udaleku ibiltarian, Mendigorrian eta Uizin lanean aritu diren hezitzailetako batzuk gero Itzartu gazte taldean aritzen dira musutruk. Jarduerak prestatu, dinamizatu eta hauek ebaluatzeko ardura hartzen dute bere gain. Hala ere, beraien motibazio nagusia, egitasmoa jaio zen egun beretik, Durango 10-14 urteko gazte txoei aisialdi euskaldun eta hezitzailea eskaintzea da. Ziur aski, honek emango die gaubela behar baino gehiago luzatzeko indarra. Eta ohiturak agindu bezala, ordu txikitik, begiak ixten dituzten loti eder horiei, mendekua hartuko diete argizari margoak eskutan dituztela. Honek ez dauka preziorik.

Agenda

Azaroak 4: Olgetan ludotekaren lehen eguna Plateruena. Astelehenero, bertan!

Azaroaren 4tik 25era: Hirukoa Lehiaketako lehen fasea

Azaroaren 12an, 13an eta 14an, 17:15ean: Familian Euskaraz Olgetan, Plateruena.

Azaroaren 23tik 24ra: Itzartu gazte taldeko gaupasa

Azaroaren 28an, 20:00etan: Hirukoa Lehiaketako aurrez aurreko gala

Abenduaren 16an eta 18an: Olgetan Astea, Ibaizabal ikastolako ikasleen ikuskizunak, Plateruena.

Abenduaren 3a: Euskararen Eguna

Abenduaren 5etik 8ra: Durango Azoka

Abenduaren 30ean: Urteko azken bertso saioa

Larrosa eta Arantza

Ohituta jada Durango erakusleho gehienetan erdarazko errotulazio irakurtzen, atentzioa eman dit gimnasia posturala, luzaketak, saio individualak eta ordutegia euskara hutsez ikustea Kurutzia kalleko lokal batean.

Zuek bai euskararekiko *postura* ona! Pentsatu dut. Euskal hiztun bezero eskertua izanik saio baten izena emateko aitzakia ere topatu dut.

Zuen *posturagaitik* beraz, zuentzako da oraingoan Arroza. Eskerrik asko.

Zugaza zinemarentzat da oraingoan arantza. Kartelak eta informazio orri gehienak erdera hutsan idatzita daude.

Emanaldiak ikusteko aukera ederra ematen digu Durango zinema areto bakarrak.

Itzela izango litzateke aretora sartu orduko asikaintza, ordutegiak eta arauak euskaraz irakurtzea. Zer gutxiago!